



MUSIKAREN GILTZAK

Fitxa egilea: Itsaso Arrieta
Laguntzailea: Pantxix Bidart
Marrazkiak: Asisko Urmeneta
Proiektuaren arduraduna: Marie Hirigoyen Bidart

GILTzaera elkarte

ILARGIAREN GORABEHERAK

Ba al zenekien Ilargi amandrea kolore ebaslea edo lapurra dela?



Gauetz zeruan agertzen den astroak edo argizagiak hainbat izen ezberdin ditu Euskal Herrian: *illargi, itargi, iretargi, argizagi, argizari, ilazki, amandre...* eta beste hamaika aldaera.

Argiztatu egiten dizkigu gauak; baina lehenik eta behin, kontu bat argitzea garrantzitsua da: Ilargia beti dago zeruan, bai egunez, bai gauetz. Ilargiak ez du argirik sortzen berez; Eguzki-argia guregana islatzen digu, argi-iturria Eguzkia da. Eguzki Sistemako planeta guztiek bezala, haien distira Eguzki-argiaren isla besterik ez da.

Hala ere, argiaren isla horrek badu berezitasunik: esaten da, Ilargiak ebatsi edo lapurtu egiten dituela koloreak. Gauza gehienak zuri-beltzean ikusten dira Ilargiaren argitan. Eta inguruari begira nahiko denbora emandakoan, paisaia urdinxka bihurtzen dela konturatzen gara. Urdintze horri Purkinje efektua deitzen zaio, izen bereko zientzialari bat izan baitzen fenomenoaz azaldu zuen lehena, XIX. mendean.

Ilargiaren gorabeherak

Zalantzarik gabe esan dezakegu gauetz argitzen gaituen argiak eragin aparta duela planetan. Izan ere, bera gabe, ezinezkoa izango zatekeen Lurrean bizitzarako baldintzak eman zitezen. Ilargiak, grabitazioaren eraginez, mareak sortzen ditu, gure Lur planetaren klimaren egonkortasuna, eta urte-sasoien zikloak mantentzen ditu.

Ilargiaren erakartze indar horrek ozeanoetako urak erakarri eta itsasaldiak sortzen dituela argi dugu, baina horretan bakarrik du eragina? Beste ur edo likidoetan? Emakumearen hilekoaren zikloan? Landareen ur edo izerdian? Nekazaritzan? Gizakion loaren prozesu konplexuan?... Gaur egungo zientziak frogatuak ditu Ilargiaren eragin batzuk, beste batzuk ordea... badago sinesten duenik, eta sinesten ez duenik ere.

Euskal Herriko inguru batzuetan ilgora denean “*uretan gaude*” esaten da; landarediaren izerdia gora dela adierazteko, Ilargiaren erakartzearen eraginez hain zuzen ere. Gainera, egiaztatu da landare batzuetan loraldiak Ilargiaren aldien erritmoari jarraitzen diola. Baina zein dira aldi horiek? Aspaldikoa da eztabaida zientzialari eta hizkuntzalarien artean. *Ilgora* eta *ilbehera* hitzak Ilargiaren tamainari buruzkoak dira, ala Ilargiak gurekiko duen altuerari buruzkoak?

Jakina da Lurra Eguzkiaren inguruan burutzen duen urtebeteko translazio mugimenduaren ondorioz, Eguzkia gorago edo beherago agertu ohi dela urtaro batetik bestera. Ilargiak luraren inguruan duen mugimenduak ia hilabete irauten du eta, Eguzkiaren antzera, zerumugan gorago edo beherago agertu ohi da bira bakoitzean. Beraz, Ilargia gau batetik bestera gorago agertzen denean, ilgora deitzen diogu eta beherantz dioanean ilbehera; ez du zerikusirik ilbetetik ilbeherako tartean eguzkiaren argiztapenaren ondorioz ilargiak duen itxurarekin.

Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista usurbildarraren esanetan, euskal kulturak ilargiaren zikloa bi fasetan antzematen du; latineratutako kulturek, ordea, lautan.

Euskal kulturen bi fase ezberdinduko genituzke:

1. Ilargiaren itxurari dagokiona. Txikitzen ari den edo handitzen ari den. Ilberri, ezer ikusten ez denetik ilargia berritzen denera, sortzen denera; eta, ilzahar, ilargi bete-betea dugunetik txikitzen hasten denera, zahartzen denera.
2. Orbitari dagokiona. Orbitan ilargia gorantz doan edo beherantz doan adierazten du eta hori plano baten arabera erabakitzen da. Ilargiak zeruan egunetik egunera, gure zeruan, altuera irabazten (ilgora) edo galtzen doan denbora-tartea (ilbehera).



Eta zein momentutan izango luke eragin handiena? Ilargiaren zein fase edo alditan?

Badirudi orbitaren egoerak duela eragina batez ere. Nahiz eta egutegi idatzi bat ez izan naturako hainbat gorabehera erregular aurreikusteko, ilargiaren zikloan oinarritzen ziren gure arbasoak. Baserriko lanetarako, eta beste jardura batzuetarako ere, oraindik entzun ohi ditugu ilargi aldiei begiratzeko gomendioak.

"Garai batean ia dena egiten zen ilargiari begira" baieztatzen du Errekondok: "Etxe bat egin nahi bazen, etxe horren zurezko egitura egiteko, ilargiari begiratu behar zitzaion. Ohe baten egitura egiteko, gurdi baten gurtetxea egiteko edo itsasontzi baten egitura egiteko, egurrek ilbeheran botatakoak behar zuten. Gogorrak, iraunkorrak, zurrinak... Ilbeheran eta ahalik izerdirik gutxien zeukaten garaian botatzen ziren. Izerdi gutxiak ekartzen baitu egurraren egituren izerdia dabilen tutu horiek itxita, lignifikatuta, gogortuta egotea". Beste funtzio batzuetarako, egurra ilgoran moztea komeni dela argitzen du: "Malguak izatea nahi ditugun egurrak, hain zuzen. Gurdi bat belarrez betetzen badugu, etxeraino eramateko belarrari eusteko gain-aga edo gaineko aga jartzen da. Komeni da hura malgua izatea, ez puskatzeko. Normalean haltza erabiltzen da, maiatzean moztutakoa. Izerdi bete-betean dago, tutuak handi-handi eta izerdiz blai daude... bigun biguna da. Hori lehortzen utzi eta malgu-malgu geratuko da. Ez du iraungo ehunka urte, etxearen zutabeak bezala, baina bere lanerako egokia da".

ATSOTITZAK

Ez dago ilargia beti bere betean

(Gizakiok ere gorabeherak izaten ditugu)



*Ilargi amandrea, zeruan zer barri?
Zeruan barri onak, orain eta beti.*

KANTUAK

Ilargi berriak (Neomak)

<https://www.eitb.eus/es/cultura/musica/videos/detalle/8611207/neomak-ilargi-berriak/>

Gaua eder dago
Haizea gogor leihoan
Izarrak dantzan ta
Kopla zaharrak alboan
Bideak, doinuak
Daramatzagu kolkoan
Ilargi berriak
Lagun zaharren ondoan

Sugarra piztu da
Ahots indartsuen loan
Aurreko plazandren
Koplak dauzkagu ahoan
Bideak, doinuak
Daramatzagu kolkoan
Ilargi berriak
Lagun zaharren ondoan

Sua maite dugu
Akelarreen beroan
Emeki, indartsu
Ulu zakarren goxoan
Bideak, doinuak
Daramatzagu kolkoan
Ilargi berriak
Lagun zaharren ondoan

Bideak, doinuak,
Kopla zahar berriak,
Sorginen kantuak,
Haien abestiak,
Sua, akelarrea,
Gure irrintziak,
Aurreko plazandrak
Ilargi berriak

Ilargi amandrea (Ene Kantak)

<https://www.youtube.com/watch?v=BNIDil8fABg>

Batzutan poto-potolo
bestetan aldiz fin-fin
ikusten zaitut goi-goian
hodeiekin dantzan-dantzan.

Argi txikia zeruan
argi asko lurrian
indar handia guregan
inguruan zaudenean.

Ezin eskuekin hartu
baina bai inguratu
atzetik segika zaitut
baina, ezetz harrapatu?

Ilargi amandrea...

Ekia gorde denean
leihoaren beste aldean
nire zain zaude zelatan
hasi nadin ametsetan.

**Ilargi amandrea zeruan zer berri?
esaiozu ekiari, bihar ere arren jeiki!**


Beti nabil zure bila
zeru beltzeko bonbilla
poto-potolo zein fin-fin
nik maiteko zaitut berdin!

Ilargi deitzen dizugu
bestetan argizagi
hilabeteen izenak
zor dizkizugu bai zuri.

Ilargi amandrea... (bis)

IPUINA

Ilargi amandrearen soinekoa (Herri ipuina)



Ilargia jostunaren leihora agertzen zen gauero, eta nola egiten zuen lan begiratzen zuen. Jostuna eseri, hankak argipean tolestu, eta guraize handi batzuekin oihalak moztu eta, astiro-astiro, josi egiten zituen.

Baina gau batean, Ilargia leihora irten zenean, jostuna ohean etzanda ikusi zuen lo gozoan.

Ilargia harritu egin zen eta honela esan zion:

— Kaixo, jostun jauna!

Jostuna esnatu, zutitu, Ilargiari erreberentzia handia egin, eta galdetu zion:

— Zer nahi duzu nigandik, Ilargi amandrea?

— Badirudi ez duzula lan handirik, oso goiz delako eta lo egin duzulako — erantzun zuen Ilargiak —. Beraz, pentsatu dut niretzako soineko bat eskatzea. Hemen kanpoan hotz handia egiten du, eta, ni zaharra naizenez, ondo etorriko litzaidake berotzen nauen jantzi on bat. Egidazu bat oso polita eta nik, trukean, doan argituko dizkizut lantegiko gauak.

Pentsatu ondoren, jostunak erantzun zuen:

— Ados, baina ez da lan erraza izango. Punta bat gorantz eta beste bat beherantz duzu, eta erdian okertuta zaude igitaia bazina bezala. Baina... eskaera bat eskaera bat da, eta lan egin behar dut sosak irabazi eta jan ahal izateko.

Jostunak neurriak hartu zizkion Ilargiari eta astebetean jantzia prest izango zuela agindu zion.

Agindutako egunean itzuli zen Ilargi amandrea. Jostunak soinekoa probatu zion, baina jantzia ez zihoakion ondo! Tripa hazita zeukan eta ogi biribil bat zirudien.

Ilargia kexatu egin zitzaion jostunari:

— Begira, lagun, jantzi hau txikia zait. Nola nahi duzu jantztea? Josturak desegin eta zabaldu pixka bat. Astebete barru itzuliko naiz.

Jostunak janzkia desegin, oihal zatiak erantsi eta, dena egoki ikusi zuenean, berriro josi zuen. Jantzia, orain, askoz zabalagoa zen.

Astebete igaro ondoren, ilunabarrean, Ilargia jostunaren etxera itzuli zen.

— Oso gizen zaude, Ilargi amandrea! —oihu egin zuen jostun harrituak—. Orain kuia bezain biribila zara. Zer gertatu zaizu? Puztuta eta lodi zaude. Urdaileko mina al duzu?

— Ahaztu egin zait pixka bat gizentzen naizela ohartaraztea. Baina, adiskidea, orain lasai egon zaitezke, ziurtatzen dizut ez dudala pisu gehiago irabaziko, ezta gramo erdi bat ere.

Hala, jostuna lanean hasi zen berriro, eta oihal-zati itzel handi bat erantsi zion soinekoari. Jantzia, orain, benetan handia zen.

Ohi zuen moduan, Ilargia handik astebetera agertu zen, ilunabarrean, baina... zer? oraingoan zotz bat bezain mehea zen, eta janzkia txorimalo bati bezala zintzilikatzen zitzaion goitik behera.

Jostuna oso haserretu zen alferrik egin zuelako lan, eta ez ziola jantzia josiko esan zion. Leihoa itxi eta ohean etzan zen, aurreko hiru asteetako alferrikako zereginetatik atsedean hartzera.

Ilargia soinekorik gabe geratu zen, horregatik jarraitzen du gauero zeruan zehar bidaiatzen, eta, atsedetik gabe, jantzia nork josiko bila dabil.

PERTSONAIA: Anton Abbadia (1810-1897)



Aita zuberotarra, ama irlandarra eta Dublinen jaio zen arren, euskaltzale suharra eta euskal kulturaren eragile handia izan zen.

Zuzenbide ikasketak hasi zituen baina beste bide bat hartu zuen gerora: hizkuntzak eta zientziak. Astronomia, kartografia, esplorazioa, eta zientziak orokorrean izan ziren Abbadiaren espezialitateak. Sorboneko unibertsitatean astronomia, mineralogia, biologia eta fisika ikasketak egin zituen.

Zientziaren eta esplorazioaren zaletasunek gazterik bidaiatzera bultzatu zuten. Brasil izan zen haren lehen bidaia zientifikoa; bertan, astronomia behaketak egiten, Lurraren magnetismoa eta eklipseak neurtzen aritu zen.

Etiopian eta Egipton eman zituen hamar-hamaika urte Arnault anaiarekin batera. Han, puntu geodesikoak trazatu zituen; hain zehatz, ezen Mussolinik berak ere mapa hori erabili zuela esaten baita. Horrez gain, bertako etnografia eta hizkuntzak ere aztertu zituen.

Etiopia, Brasil, Afrika eta Kairoko hizkuntzekin harremanak izanik 1851an, Euskal Herrira bueltan, Euskal Lore Jokoak antolatzen eta bertso saioak saritzen hasi zen euskara sustatzeko. Abbadiak euskara eta kultura bizirik iraunarazi nahi izan zituen; hizkuntza berpiztu, eta etnokultura eta euskal nortasuna indartzen lagundu.

Lehenetariko idazlana, Agosti Xahorekin batera, euskal gramatika bat izan zen eta hitzaurrea "*Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner*" eskaintzen die. Abaddiak anitzetan erabili zuen "zazpiak bat" goiburu edo leloa, eta badirudi goiburuaren sorreran edo finkatzean zerikusi handia izan zuela. Horren haritik, G. Ademak, *Zaldubik*, 1893an Azpeitiako Lore Jokoetan kantatu zuen lehen aldiz *Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun* kantu ezaguna. Iparragirrek ere hartu zuen parte Lore Jokoetako sariketetan eta Madrilen sortutako Gernikako arbola kantua ezagutzera eman zuen bertan.

Mezenas eta bultzatzaile izan zen 1851tik hil arte. Hil ondoren, Virginie emazteak jarraitu zuen "zazpiak bat" ametsarekin zazpi herrialdeetako euskaldunak bat egiten Lore Jokoen bitartez.

Euskaldunen batasuna sustatzen zuen beti eta hortik datorkio "euskaldunen aita" deitu izana. Antolatzen zituen Lore Jokoei hiru egun irauten zituzten. Izaten ziren pilota partidak (pilotalekuak ere eraiki zituen), irrintzi lehiaketak, indar probak, poesia lehiaketak, bertsolariak, kantuak... eta dena Abbadiaren mezenasgoari esker. Euskal literaturaren pizkundera (1876 - 1936) hari esker izan zela esan dezakegu. Poemak idaztea gustuko zuen, ingelesez zein frantsesez, euskaraz ez zuen askorik idatzi baina argi utzi zuen euskaraz kantatzea zuela maite.

Hizkuntzek berebiziko garrantzia izan zuten Abbadiaren bizialdian. Esaterako, Hendaian eraikitako Abbadia gazteluko hormetan, 14 hizkuntzetan daude idatzita erran zaharrak; berak ezagutzen zituen guztietan. Sarrerako atarian, irlandarrez ongi etorria eta, barnean, euskara da nagusi.

Astronomia behatokia sortu zuen gazteluan, garai hartan bakarra Euskal Herrian eta baita European ere.

Hil zenean Zientzia Akademiari eman zizkion gaztelua eta lurra baldintza batekin: Euskal literatura eta hizkuntza zaindu beharko zituela hark eta emazteak ordura arte egin bezala. Gazteluko kaperaren azpian dira ehortzirik Anton Abbadia eta Virginie Vincent de Saint Bonnet emaztea.

Garaiko koplari batek idatzi bezala:

*Esker beraz eta ohore
Murde d'Abbad, zuri,
gure herri on hau maithe
hainbertze duzunari:
Gure mihiek zaituzte
bethi ohoraturen,
gure bihotz onek ere
zaituzte maithaturen.*

Bibliografia:

- ∂ Jakoba Errekondo, 'Euskal kulturak ilargiaren zikloa bi fasetan ikusten du, latinizatutako kulturek lautan', *Argia*, 2023/05/18: <https://www.argia.eus/albisteak/puska-dezagun-izotza-ilargia>
- ∂ *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA), Euskaltzaindia: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&mapa=213, https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&Itemid=466&lang=eu&layout=sarrera&view=frontpage
- ∂ *Ilargi-argiaren magia*, Elhuyar Zientzia, 2006/11/05: <https://zientzia.eus/artikuluak/Ilargi-argiaren-magia/>
- ∂ Jakoba Errekondo Salsamendi, *Bizi baratzea - Garaian garaikoa garaiz eman eta hartu*, Argia, 2015, 173 orr.
- ∂ Xabier Zabalza, 'Pizkunde: los "renacimientos" de la lengua vasca', *SCRIPTA Revista internacional de literatura, cultura medieval i moderna*, num. 11, 2018/06, 86-107 orr. <https://ojs.uv.es/index.php/scripta/article/view/12586/11823>
- ∂ Patri Urkizu Sarasua, 'Anton Abbadia, hizkuntzalari, literatur kritikari eta mezenas', in *Antoine d'Abbadie 1897-1997: Congrès International*, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia-San Sebastián, 1998, 63-70 orr.
- ∂ Patri Urkizu Sarasua, *Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897): Bertso Bilduma*, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia, 1997, 486 orr.

Web baliabideak:

- ∂ Sagardoaren lurraldea: <https://sagardoarenlurraldea.eus>
- ∂ Basque explorers: <https://basqueexplorers.wordpress.com/>
- ∂ Bizi baratzea: <https://www.bizibaratzea.eus/liburua/Ilargia-eta-nekazaritza-Ilargiaren-aro-ezberdinen-eragina>
- ∂ *Ilargiaren aldiak*, Txikipedia: https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Ilargiaren_aldi
- ∂ <https://ekogunea.eus/files/galeria/files/Zer%20dira%20ilargi%20egutegiak.pdf>

